

## Natur edo gizarte arloko unitate baten azterketa

### 0.- UNITATEAREN EGITURA

- Proposatzen diren ezagutzak nola daude antolatuta. (gaia, azpigaia, ...)
- Informazioa nola dago banatuta. (begirada bat botatzean orriari, testu-tipologiaren egitura, espazioaren antolaketa, paragrafoak, hitz gakoak, tipografia... ulergarria egiteko)
- Testoaz gain zein beste euskarri agertzen dira (irudien kopapena orrialdean eta tamainua, testuarekin daukan lotura, antolatzaile grafikoak, kontzeptu-mapak, laburpen taulak ...)

### 1.- ZER IKASI, ZERTARAKO

- Gida didaktikoan edo liburuan bertan, dauden helburuetatik zeintzuk dira oinarrizkoenak ezagutza horiek garatzeko?
- Helburu horiek zer garapen kognitibo bultzatzen dute? (memorizazioa, erlazionatzea, konparatzea, sailkatzea, definizioak egitea eta memorizatzea; prozeduretan zentratzen da non erlazionatu, frogatu eta ondorioak atera behar ditu...)
- Zer egingo dute informazio horrekin? (besteei kontatu, azaldu, informazioa osatu edo konparatu, ataza egin, eskema osatu ...)  
Testuaren egitura aurkeztu eta landu

### 2.-METODOLOGIA

- Testu liburuan edo gida didaktikoan zein da zehazten den lan sekuentziaren ardatz metodologikoa?
- Jardueren sekuentzia zehaztutako helburua betetzeko lagungarria da?
- Zer nolako jarduera motak planteatzen dira? (zerbait behatetik abiatzen da, manipulazioa, esperientziaz, elementuak sailkatu, ordenatu, konparatu eta erlazionatu egin behar dituzte, ...)
- Jarduerak hizkuntza esparrua lantzen dute? (ahozko eta idatzizko ulermena, mintzamena eta idazmena)

### 3.- HIZKUNTZA MAILA

- Zein motatako hizkuntza erabiltzen da unitatean, ikasgaia garatzeko:  
Liburuak eskaintzen duena: hiztegia, esamoldeak, esaldien joskera, paragrafoen egitura, izenburuak...
- Hizkuntza erraztea, egokitzea ulermena bermatzeko eta ikasitakoa adierazteko:

#### A- Ulermenerako:

Irudiak, objektuak euskarri gisa erabili, gidatutako edo modelatutako jarduerak.

Antolatzaile grafikoak erabiltzea hitz-gakoak ulertzeko ( eskema, diagramak, kontzeptu-mapa...)

Oinarrizko lexikoa zehaztu, gaia ulertzeko hitz-gakoak. ( talka, jo, ikutu...)

Oinarrizko berezko lexikoa zehaztu ( gaiarekin lotuak: izpia, errefrakzioa, argitasuna, itzala, gardena ...)

Agindu argiak, egitura errepikakorrak ulermena egiaztatzeko.

Esaldiak erraztu ( sinpleak), egitura eta aditz denbora aldetik

#### B.- Ekoizpenerako:

##### Ahozkoa:

Keinuen, irudien edo euskarrien erabilera ezagutzak adierazteko.

Hiztegia, hitzak izendatu eta keinuen bidez lotu.

Izena eta aditza konbinatuz esaldia egin.

Idea osoa adierazi laguntzarekin ( argi zuriak kolorez osatuta dago.

kolore gorria, berdea, beltza, urdina... nahastean kolore zuria sortzen da.

Idatzizkoa:

Helburuaren arabera ekoiztuko duten testuaren egitura landu.

Berezko lexikoa

Ideiak adierazteko esaldi laburrak.

Ideien arteko loturak egiteko lokailu eta juntagailuak zehaztu.